

Txillardegiren euskal lanez*

Xabier Kaltzakorta

Egunon eta berri on, jaun-andreok:

Aurkezpen gisako hitzaldi labur honetan Jose Luis Alvarez Enparanza, edo bere izenorde ezagunago batez adierazteko, “Txillardegi”-ren aurkezpen-lana egotzi didate Mendebalde Alkarteko lagun eta adiskideek. Ez dakit mundu honetan bizi garen guztiok zein neurritan garen geure lan edo arazoen errudun. Ez dakit, era berean, zergatik askotan eta askotan dorpe, ez kai edo moldakaitzenari suertatzen zaizkion nekezen burutu ditzakeen eginbeharrak. Niri egotzi didaten lana edo eginbearra ez da, egia esan, txantxetakoa. Ordu laurden batez Txillardegiren euskal lanen berri eman behar dut Mendebaldeko jardunaldi hauen azken saio gisa.

Hasteko eta behin, nire Txillardegiren ezagutza ez da erabatekoa. Ez dut aurkerpengai dudan Txillardegi osotoro eta osotara ezagutzen. Hau da nire lehen egia eta ezinbestea, jakin nahi baduzue. Nik Txillardegi liburu eta artikuluetatik ezagutzen dut. Nire ezagutza liburuetatikoa denez gero, zatikakoa da ezinbestez. Txillardegi hezur-

* Berbaldi hau Mendebalde Kultura Alkartek, iaz, Txillardegiri eginiko omenaldian irakurria dozue. Omenaldia *Euskalkia eta Administrazioa* (Bilbo, 2002/05/10-11) izeneko jardunaldien amaieran burutu zan.

haragizkoarekin aurrez aurre egokitu edo portunatu naizen apurretan, ez naiz berarekin mintzatu. Ez diot inoiz, buruz buru egokitu garenetan, neure ezagupiderik eman, eta kanpotar bat etxean sartzen denean ume lotsorra sukalde bazterrean mutu gelditzen den bezala, ni ere mutu eta isil gelditu izan naiz. Neure burua eta jakineza zuritze-ko, kontatu dezadan aspaldi irakurri nuen Indiako ipuin txiki txiki bat.

Behin maisu edo irakasle batek bere ikasleari guztiok dugun munduaren ikuspegi urri edo laburra eman nahi omen zion aditzera. Maisu honek bazuen elefante bat, eta elefante horren aurrera hiru gizon itsu ekarri omen zituen. Animalia haundiaren aurrean hiru gizon itsuok jarri, eta, “zer duzue aurrean” geldetu omen zien delako irakasle horrek. Gizon itsuetariko batek elefanteari gorputza ukitu omen zion. Lehen itsuak gorputza haztatu zuenean, bizkargaina eta tripazpia ukitu edo igurtzi omen zizkion. Bigarren itsuak elefantearen hanketariko bat ikutu edo besarkatu zuen. Hirugarren itsuak elefantearen isatsa edo buztana ukitu eta haztatu omen zuen luzaz. Gorputza tripazpitik bizkargaineraino igurtzi zuenak, barrika edo upel handi bat eskuztatu zuela esan zuen. Elefantearen hanketariko bat haztatu zuenak, arbola-enbor tinko bat besarkatu zuela esan zuen. Elefantearen isatsa ukitu zuenak, soka lodi edo liana bat estutu zuela esku artean esan zuen. Hiru itsuek elefante bera ukitu zuten eta ukipen horretan inork ez zuen elefantea delako animalia eskuztatu zuenik uste. Alegia edo apologo honek dioskuna egia dela edo egiatik hurbil dagoela uste dut. Errealitatea bat bakarra den arren, errealitate horren pertsona hainbat ikuspegi daude. Itsu bakoitzak bere ikuspegia, edo nahiago baduzue, bere itsupegia du, nahiz eta mundu honetan argialdi mirarizko batek begiak argiturik, ustezko itsu-argitu asko edo gehiegi egon.

Nik neure aurkezpentxo honetan nik ezagutzen dudan Txillardegiren berri emango dizuet, nire ikuspegi pertsonalaren berri



Txillardegi oroigarria jasotzean, X. Kaltzakorta eta I. Gaminde lagun dituala

emango dizuet, ezinbestez. Neure alfabetatze eta euskalzaletze garaian, Juan Mari Torrealdai-ren *Euskal idazleak*, gaur liburu gotor eta argazkitsuaren jabe egin nintzen. Liburuaren erditsuan garai hartako hamar idazle handienei argazkirik handienak eskeintzen zizkien Torrealdai. “Las diez firmas contemporaneas preferidas” atalean, lehen hamar idazle kutun eta maiteen artean Txillardegi agertzen zen, Mitxelena eta abarren aurretik. Azgazkiaren ondoan “Novelista, crítico, ensayista, periodista, gramático” agertzen zen. Nik artean hamaazpi bat urte nituen eta lotsagarria iruditzen zitzaidan haren lanak irakurri gabe bertan goxo gelditzea, eta halaxe jarri nintzen elaberri eta saio lanak irakurtzen. *Leturia-ren egunkari ezkutua* (1957) liburutik hasi eta hurrengo *Peru Leartzako* (1960) irakurri nuen. Harrezkero beti izan naiz Txillardegiren nobelen zalea. Hitzalditxo hau prestatzeko garaitsu hartan irakurri nituen elaberriak berrirakurri eta

neure ikuspegia adieraziko dizuet, hitz bitan. Lehen bi elaberrietan, *Leturia-ren egunkari ezkutua*-n eta *Peru Leartzako* horietan, protagonistak mundu honetan norarik gabe aurkitzen dira eta aurrera egingo badute, noraezekoa zaie erabaki bat hartzea. Bizitzea behin eta berriro aukera bat egitea da. Aukera bat egin beharrak dakarren ezinbestea da lehen elaberrian agertzen dena. Behin aukera bat eginez gero, ez dago atzerarik, ez dago itzulpiderik. “Zerubide” parkera doan Leturiak askotan pentsatzen du Mirenez. Miren da bere amets guztizkoa eta xurigorria. Miren da bere zerugaia, eta zorion betean aurkituko dela uste du, baldin Mirenekin ezkontzen bada. Baina behin ezkonduz gero, ezkondu aurreko osin beltz berean eroriko da. Beti gogoeta hari da Leturia, eta gogoetek askotan etsimendura eramango dute. Leturia uzkur eta bakarzalea da, Peru Leartzakoa den bezalaxe, eta gogoetak dira batez ere liburuiko pertsonaiak. Egunkarian beste idazle bakarzale uzkur bi agertzen dira izendaturik: Kafka eta Amiel. Amielek egunkari izugarri luze bezain sakon bat idatzi zuen, eta, hil ondoren zatika eta puskaka argitaratu bada ere egunkari hori, gogoeta sakon eta ederrez oratua dago. Villasantek esan zuen liburuaren kritika labur batean: “Leturia erdi ero bezala agertzen zaigu. Inoiz ispillura begiratzen du eta arriturik gelditzen da bere begiak ikustean: ero baten begiak, alegia”. Leturiak erotik izan dezake baina pertsona argitik ere badu. Leturiaren zein Peru Leartzakoren gogoetak sakonak dira. Liburu ermetiko eta zailagoa iruditu zitzaidan, esaterako, *Haizeaz bestaldetik*. Hiru liburu hauek omen dira euskaraz etsistenzialismoaren korrontea ekarri dutenak euskal letretara. *Haizeaz bestaldetik* da olerkitsuena eta, era berean, sinboloz jositakoena. *Haizeaz bestaldetik* honetan hildako batek hitz egiten du, eta behin hil ondoren ez dagoela ezer adierazi nahi digu, oker irakurri ez badut. Liburu honetan *Pedro Paramo* liburuan bezala, pertsonaia nagusia eta kontalaria hilda dago, eta haizeaz bestaldetik, hots, bizi az bestaldetik ez dago itsasorik, ez dago betetasunik, ez dago zorionik, ez dago zerurik. Mundu honetan laku idor batzuk baino ez daude, zorion-izpi batzuk

betetasun osorik gabekoak. Liburuko kontalariak komentu bateko fraileei ere hil ondoko edo hilez gerozko ustearen ustela adierazi nahi die. Ezerezaren berri-ekarlea da liburuko kontalaria. Liburu honetan adierazirik daude maitasun–inkontru bateko hitzik olerkitsuenak, Gethariko itsas-bazterreko inkontrua. Sinboloz josita dagoela esan dut eta hona batto. 71. orrialdean, bigarren edizioan, hau irakurtzen da: *Zergatik tristatzen hinduen, Irailean, mendi mazelatoko txilartza apal more zabalak? Oroitzen al aiz? Txilar-lorea, udazkenaren aitzin-dari. Eta hik udazkena nahi ez; udazkenik nahi ez, hobe. Larrazken osto eihartuen kide umila nahi ez hik... Zergatik ez ordea?* Txillardegiren nobela honetan txilarra, edo nahiago baduzue, txillar-tza agertzen da, *txillardegia* beste hitzez, udazkenaren aintzindari bezala. Lizardiren “Urte-giroak ene begian” hartako otalorea ere,



Txillardegi Maribi Unamunogaz gorazarre ekitaldiaren ostean

denok dakizuenez, karraxika dago udaberriari deika. Otaloreak udaberriari deitzen dio, bizitzari, txilar-loreak udazkenari, heriotzari, deitzen dion bezalaxe.

Nobela esistentzialista hauen ondoren baditu beste nobela klasiko edo barojatar batzuk, *Exkixu* eta *Putzu*, esaterako. Bietan euskaldun baten bizimodua agertzen da, batean ETAKo baten bizia eta gorabeherak, bestean Donostiako Putzu kalean jaio eta bigarren karlistadan burrukatzen duen Jose Mari Arruabarrenarenak. Jose Maria Arruabarrena honek karlisten alderdian burrukatuko du, herri barruko atzerria edo, nahiago baduzue erbestea, ezagutuko du, Baionan ezkondu eta biziko delako. Putzu edo Jose Mari Arruabarrena zahartu ahala, Iparragirreri gertatu zitzaion bezala, bere zimentarri ideologikoak ahuldu egingo zaizkio, eszeptikoago egingo da. Nobela hauezaz luzaz hitz egingo nuke hemen, baina esan dezadan hiztxo bat bakarrik. Ez dut uste merezi duten kritikarik jaso dutenik. Uste dut *Leturia*-k, esaterako, kritika lan eta erreseina gehiago izan duela aldizkarietan azken hauek baino.

Txilardegi elaberrigile den aldetik zerbait esan dugu, orain aipa dezagun Txillardegi saioegilea. Txillarderiren lumaren indarra eta zorroztasuna bere saioetan agertzen da. Badaki zerbaiti gatza eta berakatza ematen. Motz eta zorrotz kontatzen du, Xarritonek zioen bezala. Saioak era askotakoak ditu hor-han-hemen agertaraziak. Saio sakabanatu horietako zenbaitek izan dute liburuetan beren tokia, *Huntaz eta hartaz* (1965), *Euskal herritik erdal herrietara* (1978) *Euskal herria helburu* (1994). Saio horietan niri erreportaiak gisakoak zein zero edo izartegiaren gainekoak ditut maiteen. Oroit ditut esaterako Estatu Batuetako kronikak edo Astronomiaren gainekoak. “Betikoaz agian”, esaterako, zeruan gau zohargietan begietaraten zaizkigun izarren misterio, urruntasun eta handitasunaren berri ematen duenean, berriro Leturiaren edo Peru Leartzakoaren mintzo etsia entzun uste dut. Euskal Herriko Iparraldean, Zuberoa eta gainerako

lurraldeetako euskararen atzerakada edo gainbehera ematen duenean ere beste hainbeste iruditzen zait.

Txillardegik alderdi asko ditu, euskararen aztertzaile, euskalari, hizkuntzalari, Euskara batuaren harroin, oinarri edo zutabe sendo. Liburu arras maitagarriak dira niretzat *Sustrai bila. Zenbait korapilo* (Donostia 1970), *Oinarri bila. Morfosintasian eta fonologian* (Donostia 1977). Badira alaitasunaren hortzadar koloretsua euskal liburuetara ekarri zituzten garai bateko liburu politak ere. Liburu koloretsu eta bizipozaren emaila suertatu zitzaizkidan *Euskara batua zertan den* (Arantzazu 1977), *Euskal Gramatika* (1979) *Euskal*



*Omendua Mendebalde Kultura Alkarteko kideakaz jardunaldien amaieran**

* Ezkerretik eskumara; Juanjo Respaldiza, Kepa Altonaga, Estibaliz Amorrortu, Iñaki Gaminde, Jesus Mari Txurruka, Joserra Bilbao, Kaxildo Alkorta, Maribi Unamuno, Txillardegi, Ricardo Badiola, Andres Urrutia, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Kaltzakorta, Manu Ormazabal, Jazinto Iturbe eta Eneko Barrutia.

Fonologia, Euskal Aditza... Aditzaren erroak eta denbora markak kolore diferentez, pedagogikoki azalduak. Baditu geroago agerturiko artikuluko sakon eta liburu monografikoak ere, hor dago *Euskal azentuaz* (1984) tesi lana ere. Baina denak ezin aipatu ditut aurkezpen labur honetan. Txillardegi euskalari ez ezik, Txillardegi hizkuntzalari ere bada, hizkuntzak aztertzeko Europako joerak azaltzen ditu, esaterako, *Hizkuntza eta pentsakera* (1972) liburuan. Txillardegi itzultzaile ere izan da, oso oker ez banago. Lehen artikulua argitaratua euskarazko itzulpen bat izan zen Alfonso Daudet-en ipuin bat *Egan* aldizkarian 1956, (2 zenbakia, 25-33 or.), gerora ere etorriko ziren hainbat itzulpen, C. Freinet-en hiru liburu bai behintzat, edo Leeuwen, Th. Van eta W. Disneyren testuaren itzulpen bat *Jendeak eta bizilekuak* liburuan (1975) agertua.

Denez gain, bukatzeko, esan dezadan ikertzaile eta idazle dela Txillardegi. Ikertzaile da hizkuntzalari eta euskalari den neurrian. Idazle da elaberri eta saioak idatzi dituen neurrian. Ez litzateke, beharbada, ikertzaile eta idazle izango euskara errotik maite ez balu. Ez luke, apika, euskaraz eta euskararen gainean hainbeste eta hain ondo idatziko euskal mina edo euskararenganako mina bihotz zolan iltzaturik ez balu. Ama euskarak euki duen langilerik handi eta aspergaitzenetakoa da Txillardegi. Arestik esan bezala, euskarari eta euskaldunei eman den euskal gladiatorerik suhar eta argienetakoa da Txillardegi. Ama euskarak izan duen eta duen langile eta artista dela diot, eta uste dut zilegi dela Ama euskara esatea amagandik euskara ikasi ez duen batez ere. Guzti horregatik eta gehiagogatik ere eskerrik asko eta zorionak bihotzez.